

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Amudaren hegala

ARRANTZAN, hegaluzetan eta hegalaburretan, artaburuaren zurikinarekin aritzen ziren garaietan, artoak (*Zea mays*) zuen sona egun duenaren bi halako behintzat izango zen, bikaina. Erritu berezietakoa omen zen baserrietan artazuriketa. Koka gaitezen: negu beltza gorrienean, hur intxaur babarrun kui eta abarrez ganbara bete arto, txerri hil berriarekin gazikutxa ederki hornitua eta sendi osoa suaren inguruan, artazuriketetan gozo, giza-gozo. Artazuriketetan artaburu zuritu eta aletu egiten zen. Lan horretatik gai bat,



www.ceccam.org

artalea, eta bi hondakin, zurikina eta lokotxa, sortzen ziren. Hobeto esan, hiru gai, hirurak baliatzen baitziren. Baita zurikina ere. Artalea jasotzen zen bezalaxe gordetzen zen zurikina. Hortik baserri barruko zurikineta tokiaren izena; barrika eta bukoiena pitarreta zen bezala, zurikinena zurikineta. Artoa Ameriketatik ekarri eta hemen lantzen hasi zirenean, bere ekoizpenak behar bezala lehortu eta jaso ahal izateko, ordura arteko dolare-baserriak handitu beste aukerarik ez zuten izan: zurikinak, lokotxak, aleak, zuztarrak...

Baterako ez bazen besterako artoaren emari guztiak probetxuzko gaiak ziren.

Oihalak eta hostoak bezala, zurikina bilgarri gisa erabili izan da papera eta plastikoaren aurretik. Lo gozo gosea asetzeko zurikinez betetzen ziren lastairak. Arrantzaleek zurikin berarekin bildutako amuarekin egiten zuten atuneta. Zurikin zapien bildutako amu horri amuda deitzen zioten. Bitxia izena.

Bitxiagoak baditu, baita xebreak ere, zurikinak berak: maluta, kapaxa, kaloka, artamaluta, txurikin, xurikin, arto-zurikin, xuriondo, kapatxa, artazorro, mokol, borruztu, maillazto, mallasto, masalasto, kordotxa, espata, artakapela, kapula, mokotsa, xuriondo... Polit askoak bai tartean, baina nik gogokoen dudana beste bat da, artagona.

Artaburuaren zurikinarentzat zenbat hitz. Eta artaburu esateko?



JAKOBA ERREKONDO



Estetika

Hemen zerba (*Beta vulgaris* subsp. *vulgaris*) sail dotorea. Garai batean bi zerba mota erabiltzen ziren gure inguru honetan: berdea eta horia. Zakarxeagoa, garrarxeagoa lehena, finagoa bestea. Gaur egun kolore guztietakoak baratze guztietara hedatzen ari dira. Estetika polita dakarte zerba berri hauek gure baratzeetara. Estetika hori hirietako lorategietan ere ikusten da orain. Eta, zer esanik ez, baita plateretan ere.

